


GAZTAREN IX. BILTZARRA

ORDIZIA - 2024/10/04



IDIAZABAL GAZTAREN KOFRADIA
COFRADÍA DEL QUESO IDIAZABAL
ORDIZIA





SARRERA

Aurreko edizioetan bezala, Ordiziako Gaztaren IX. Biltzarrerako VIII. edizioaren formatu bera mantentzea erabaki du Kofradiak. Hau da, ekitaldiaren iraupena goiz bakarrekoa izango da. Aurrekoetan bezala, biltzarra UPV/EHUren Udako Ikastaroen parte da, erakunde honek gizarte-sektore zabalean duen irismena baliatu eta gure herriko gastronomian, kontserbazioan, biodibertsitatearen hobekuntzan eta ekonomian hain garrantzitsua den artzaintzaren jarduera ezagutzera emateko.




BILTZARRAREN XEDEA

Biltzarra urriaren 4ean egingo da, ostiralean, eta Idiazabal Gaztari lotutako sektorearen balorizazioa egituratuko du, eta jardueraren alderdi gehienak jasotzen dituzten bi euskarri sozioekonomikotan oinarrituta, ekitaldia lau saiotan banatuko da.

Ibarretako gaztandegietan egindako gaztagintzari dagokionez, artzainen irudimenean muga berriak irekitzea da helburua, haien egonezina sustatzen saiatuz, eta euren errendimendua hobetze aldera.

Mendiko gaztarekin lotuta, sektorea garatzen den eremu geografiko jakin batzuetan bizirauteari lotutako alderdiak landuko dira, zerikusia duten eragileen arteko topaketa ahalbidetzeko. Lehen urrats gisa gaiak mahai gainean jarri, ondoren, inplikaturako eragileek konponbiderako bide posibleak azter ditzaten. Sektorearen berezitasuna babestea da helburua, ibarretako gaztaren kalitate bereko gaztaz gozatzeko aukera ematen digulako, eta biek ala biek, (mendiko nahiz ibarretako gaztek) jarduera ekonomiko eta paisajistiko baten, eta geroz eta mehatxatuagoa dagoen oinordetzan jaso dugun natur orekaren mantentzea baitakarte.



ORDIZIAKO GAZTAREN IX BILTZARRA

IDIAZABAL GAZTEAREN ORDIZIAKO KOFRADIAK antolatuta, **Ordiziako Gaztaren IX. Biltzarra** **urriaren 4eko** goizean zehar ospatuko da, **Barrena Jauregiko Ekitaldi Aretoan**, jarraian zehazten den programaren arabera:

PROGRAMA

9:00ETAN

Biltzarraren irekiera agintarien eskutik.


MENDIKO GAZTA / TRANSHUMANTZIA

9:15ETATIK 10:00ETARA

Mikel de Francisco jaunaren hitzaldia. Biologoa, HAZI Fundazioko Natur Ingurunearen Arloko arduraduna. Lehenengo parke naturalen definizioan eta izendapenean parte hartu zuen, baita Euskadiko Natura 2000 sarearen hasierako diseinuan ere. LIFE Oreka Mendian proiektuaren arduraduna ere izan da. Proiektu horrek euskal mendi nagusien kontserbazioaren eta abeltzaintza estentsiboaren arteko harremanean sakondu zuen, eta berriki Europako Batzordeak Natura 2000 saria eman dio. Gaur egun, Euskadiko RURALTXA! proiektuaren garapena zuzentzen du. Bertan, mendietako paisaiaren kontserbazioaren eta abeltzaintzaren arteko harremanean sakontzen da, erlazio horretan faktore sozioekonomikoez duten garrantzia kontuan hartuta.

HITZALDIAREN IZENBURUA: Euskal mendietako paisaiak: sortutako natura bat kontserbatzeko erronka. Mendiko larreak, tokiko transhumantziari lotuak, euskal mendien bereizgarri dira. Flora- eta fauna- espezie oso bereziak dituzte, eta gure naturgune babestu nagusien muina dira. Baina natura hori ez da birjina. abeltzaintzaren kudeaketa eta aprobetxamenduaren mendeetako emaitza baita, gaur egun mehatxupean dagoena, Europa osoan, mendi-eremuetan artzaintza estentsiboa bertan behera uztearen eta murriztearen ondorioz. Zorionez, EAEko zenbait mendilerrotan abeltzaintza-sektore estentsibo dinamikoa dago oraindik, baina gune horietako biodibertsitateari eusteak, nekazaritza eta naturaren kontserbazio-politikekin laguntza handiak eskatzen ditu.





MERKATURATZEA. ARTZAI GAZTA.

10:00ETATIK 10:45ERA

Jaime Izquierdo jaunaren hitzaldia. Geologia Zientzietan lizentziaduna, Asturiasko Printzerriko Gobernuko enplegatu publiko gisa erretiratua. Artikulugilea. Landa-edukiari eta lurralde-garapenari buruzko eskuliburu eta saiakera ugariren egilea. Mendiko Udalerrien Espainiako Elkarteko Aholku Batzordeko koordinatzailea eta La Lagunako Unibertsitateko Nekazari Ikasketen Kultura Katedrako kidea.

HITZALDIAREN IZENBURUA: Gaztagilean bertan hasten da gaztaren balorazio-prozesua. Artzain-gazta egiteko, gaztagintzaren, lurraldearen eta ekoizpen-bitartekoen erabilera berezia egin behar da, eta horrek erabat bereizten du beste elikagai-ekoizpeneko prozesu batzuetatik, bai eragiketa-kostuei dagokionez, bai errentagarritasunari dagokionez, eta, batez ere, hortik eratorritako kanpo-efektu ekonomikoei erreparatzen badiegu. Horiek, oro har, oso positibotzat jo daitezke jarduera garatzen den ekosistemarako. Aitzitik, jarduerak ekoizpen eta eragiketa-kostuak dakartza, artzainari onurarik eragiten ez diotenak. Artzaintzaren etorkizunak gogoeta ekonomiko sakona eskatzen du milaka urte dituen lanbide honen inguruan. Izan ere, lurraldearen kudeaketa integralari, artzaintza estentsiboak lan egiten duen agroekosistemen kontserbazioari, ekoizpenaren errentagarritasun ekonomikoari, eta artzainaren beraren kontsiderazio sozialari lotutako lanbidea eguneratu egin behar da estrategia berriak abian jarritz, antzinako ofizioa etorkizuneko lanbide ospetsu bihurtu ahal izateko.


10:45ETATIK 11:15ETARA

Atsedenaldi-hamaiketakoa

11:15ETIK 12:00ETARA

Agustin del Prado jaunaren hitzaldia. BC3 Klima Aldaketaren aurkako Euskal Institutuko ikertzailea. Bere lan-eremua, analisi zientifikoaren bidez, giza jarduerak GHG berotegi-efektuko gasen ekoizpenean eta finkapenean lurraldearen erabileran duten eraginaren ebaluazioan eta berotze globalaren gaineko eraginean zentratzen da, hurrengo belaunaldientzako ondorio katastrofikoak iragartzen dituenak.


HITZALDIAREN IZENBURUA: Klima-aldaketa. Giza jarduera. Zerk eragiten du zer, eta zein neurritan? Hizlariak abeltzaintza estentsiboari planetaren tenperatura globalaren igoeraren erantzukizun handia egozten dion azaleko eta gutxi hausnartutako joera mediatiko eta iritzi publiko handiarena aztertzen du, arazoaren konponbide gisa gainera, artzaintzaren jarduera bertan behera uztea diagnostikatzen duena. Artzain batzuen artean erru sentimendu jasanezina eragitera iristen da korrante hau. Artzaintzaren ondorioak, gizarte industrialaren berezko jarduerekin eta aisialdiarekin alderatzen ditu, honako parametro hauek kontuan hartuta: biodibertsitatea, karbonoa lurzoruan finkatzea (laboreak, basoak, belardiak), lurzorua eta uraren hiru erabileren eskumena, berdea, urdina eta grisa, eta haragiaren ekoizpenean duten erabilerari buruzko argibideak, polinizazioaren gaineko ondorioak, sastrakatzearen eta albedoaren galtzearen ondorioak, animalien ekoizpeneko metanoaren eta fosilaren lurraldearen asimilazioan dauden desberdintasunak, etab. Hori guztia logika arrazional eta zientifiko batetik, landa-lan askotan oinarritua gainera.



12:00ETATIK 12:15ERA

Jesus Garzoni (Suso) hil osteko omenaldia. Hizlari gisa parte hartu zuen Kongresu honetako IV. Edizioan. Erreferentziazko pertsonaia Europa osoan natura-ingurunearen defentsan. Beste gauza askoren artean, Monfragüe eta Oyanbre Parke Naturalak sustatu zituen, gaur egun ezagutzen ditugun azken garapenera arte. Parke horiek, Rodriguez de la Fuenterekin batera, iberiar katamotz eta arrano inperiala berreskuratzeko ekimenen sortzaileetako bat izan ziren. Seo BirthLife bezalako erakunde kontserbatzaile ugariaren sortzaileetako bat izan zen. Transhumantziarako eta larratze estentsiborako Errege Abelbideen milaka kilometroen berreskuratzailea, garai batean, artaldeak lekuz aldatu eta artilea euskal portuetara eramateko ezarri zirenak, bertatik Europa osora iristeko. Abelbide horiek, lan izugarri bat egin ondoren eta mila eta bat traba administratibo gainditu ondoren, gaur egun 125.000 km-ko sare zabala osatzen duten abeltzaintza-ibilbideak dira. Ibilbide horiek berebiziko garrantzia duten korridore ekologikoak dira, eta Madril bezalako hiriak zeharkatzen dituzte. Beste lorpen bat artzaintzaren defentsa irmoaren barruan, jarduera profesional eta kultural gisa, ondo baino hobeto oinarritutako bere diskurtsoan, berotze globalaren aurkako borrokan esanguratsuena.





12:15ETIK 14:00ETARA

Mahai-ingurua.

Moderatzailea: **Jon Odriozola** jauna. Komunikazioan aditua. Puntu hauek landuko dira:

- 1.- Hitzaldi bakoitzaren ondorengo galde-eskeetan landu ez diren edo behar bezain sakon landu ez diren gaien garapena.
- 2.- Datorren edizioan, 2025eko X. Kongresuan landuko diren gaien proposamenak.

13:45ETAN

Biltzarraren amaiera.

OHARRAK:

1. Aldi bereko euskara-gaztelania itzulpena egongo da.
2. Hogeitabik sarean emango du Kongresua.

Esteka:

<https://quesoidiazabal.org/9congreso>

